

# DROGETEN

ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 307. zenbakia. 2022ko urtarrila

JUBILATUEN ETXEA

**Mallabiko jubilatuak  
berriro martxan  
jartzeko prest!**






# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

Astelehenetik ostiralera:  
**8:00**etatik **22:00**etara  
Zapatuetan:  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

**JARRAI IEZAGUZU**

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Estibalitz González,  
Eneko López,  
Nahia Ruiz Albizuri,  
Jon Saez,  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**

Anaitasuna Ikastola,  
Patxi López,  
Garazi Mugarza  
eta Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Anaitasuna Ikastola,  
Juanmi Bravo,  
Inés Gimeno Estévez,  
Josu Gomez,  
Estibalitz González,  
Ubane Madera,  
Richard Medina,  
Valentin Mugarza,  
Unai Rodríguez,  
Nahia Ruiz Albizuri  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ayoub Hdidou  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: ume-kantua

## Azogara

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Behin juan nintzan  
azogara,  
erosi neban  
txakur txiki bat.  
Txakur txiki horrek  
uau! uau! uau!  
Ai, ze gaba  
pasau neban nik!  
Ai, ze gaba  
pasau neban nik!

Behin juan nintzan  
azogara,  
erosi neban  
katu txiki bat.  
Katu txiki horrek  
miau! miau! miau!  
Ai, ze gaba  
pasau neban nik!  
Ai, ze gaba  
pasau neban nik!



# Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA ..... 4

Inés Gimeno Estévez (Grezia)

ELKARRIZKETA .....5-7

Juanmi Bravo, Berbalaguneko arduraduna

MALLABIAN ZER? ..... 8-9

Jubilatuena Elkarte martxa hartzeko prest

ERREPORTAJEA ..... 10-11

Pilar Narbaiza erraketista

MOTZEAN .....12-13

Martxoaren 31n abiatuko da 22. Korrika

KIROLZALE ..... 14-15

Urko Gavez Trail Team

ERMUAN ZER? ..... 16

Ermuarrak Laba Aretoren aurkezpeneari

ESKOLEN TXOKOA ..... 17

Anaitasuna Ikastolako berriak

IRITZIA ..... 18

Benetako bizitza (Garazi Mugarza)

BOTEPRONTOAN ..... 19

Manuel Jiménez

ANTZINAKOAK ..... 20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ZORION-AGURRAK ..... 21

Saldu, erosi edo agurtu

OTSAILEKO AGENDA ... 22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Inés Gimeno Estévez

2018an Madrilera joan zen Inés Gimeno ermuarra, Politikako eta Filosofiako Gradu bikoitza egitera. Hiru urte geroago, 2021eko irailean, Tesalonikara joan zen, filosofia ikastera Erasmus programari esker.

## - Erabaki erraza izan zen Greziara joatea?

Jende askok animatu ninduen Erasmusa egitera, bizitzan esperientzia paregabea delako, eta nik ere argi neukan egin nahi nuela, baina kostatu zitzaidan erabakia hartzea: beste herrialde batera joango nintzelako, ezagutzen ez nuen hizkuntza batekin... Gainera, gauza asko antolatu behar dira hona etortzeko. Behin erabakia hartuta, ez nuen argi seihileko bat edo bi egitea, baina azkenean bi egingo ditut. Horrez gain, nire bizitza eta ikasketak nituen Madrilan, eta ez nituen horiek atzean utzi nahi.

## - Nola imajinatzen zenuen Grezia?

Pelikuletan ikusi ohi dugun bezala: zutabe zuriak, filosofoak eta itsaso urdinak.

## - Eta espero zenuen bezalakoa da?

Tesalonikak turkiar eragina du, beraz, ez da imajinatzen nuen

bezalakoa: bizantziar historia du eta ez da dena zuria. Horrez gain, janariak harritu ninduen, oso gustukoa dut! Hala ere, uste dut haragi gehiegi jaten dutela. Eguraldiari dagokionez, ez da hain desberdina; bai, ordea, ohiturak: lasaitasunez egiten dute dena, eta "jalará" deitzen diote bizitzeko estilo honi.

## - Ondo moldatzen zara grezierarekin?

Joan aurretik eskolak hartu nituen, eta pixka bat ikasi nuen. Ikusi nuen hizkuntza nahiko erraza dela, gaztelaniaren gramatikarekin antza handia duelako: behin alfabetoa ikasita, dena da errazagoa. Gainera, hitz egiteko tonua berdintsua da.

## - Zerbait botatzen duzu faltan?

Janaria batez ere, baita antolakuntza ere: hemen lasai hartzen dute bizitza, eta trafikoa, administrazioa eta zerbitzu publikoak oso kaotikoak dira.



## - Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Liburutegira joaten naiz lanak egitera, eskolak grezieraz di-relako eta oraindik ez dudalako oso maila altua. Hala ere, lanak ingelesez aurkezteko aukera dut. Denbora librean, lagunekin bidaiatzen dut gertu dauden herrialdeetara, edo Erasmuseko beste ikasle batzuk ezagutzen ditut. Erasmus ikasleontzako gauza pila bat antolatzen dituzte hemen, eta oso gustura nago. Jende asko ezagutu dut,

eta ingelesa hobetzeko aukera bikaina izaten ari da.

## - Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Greziara heldu nintzenetik ez naiz Ermura bueltatu, baina Aste Santuan joango naiz.

## - Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ez dut uste. Etorkizunean gustatuko litzaidake leku berriak ezagutzea eta atzerrian bizitzea.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**AIZ**

**AIZ Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen

# elkarrizketa



Urko - Arrate mendietara egindako irteera batean ateratako argazki honetan, Juanmi Bravo agertzen da lehen planoan.

**Juanmi Bravo, Berbalagun egitasmoko koordinatzailea:**

## **“Azken 20 urteotan, euskarazko 100.000 orduko jarduna eragin dugu Ermuan”**

Badira hogei urte AEK-k Berbalagun egitasmoa martxan jarri zuenetik, hau da, euskara praktikatu nahi dutenak eta euskaldun osoak elkarrekin aritzeko aukera ematen duen proiektua. Euskal Herriko hainbat herritara zabaldu zuen proposamena AEK-k, eta Ermuak harekin bat egin zuen hasieratik. Lauzpabost talde aritu ziren lehen urte horietan, eta gaur egun 13 talde daude Ermuan eta Mallabian. Euskal Herriko datuei erreparatuta, 95 herritan burutzen da egun Berbalagun, 7.000 parte-hartzaile daude guztira, eta urtean 300 ekintza baino gehiago antolatzen ditu. Hogei urte hauetan ia guztietan, Juanmi Bravo ermuarra izan da Ermuko zein Mallabiko dinamizatzailea, eta proiektuaren nondik norakoak aztertu ditu.

- 95 herritan burutzen da AEKren Praktikatuz zerbitzuak sortutako Berbalagun egitasmoa. Ez da gutxi...

Bai, duela 20 urte herri gutxi batzuetan jarri zen martxan, ia esperimendu bezala. Hasieran, Euskaltegiak presentzia zuen herrietan egin zuen proposamena, batez ere Bizkaian: Bilbon, Barakaldon, Durangon, Ermuan... Gero Gipuzkoara, Arabara, Nafarroara eta Iparraldera hedatzen joan zen. Aurten, esaterako, Tuteran inguruan jarri da martxan lehen aldiz.

- **Begi onez ikusi zen herri guztietan?**

Gehienetan bai, baina herri batzuetan ez zen gauzatu. Aldiz, badira ere AEKrekin harremanetan jarri zirenak zerbitzu hura eskatzeko. Izan ere, instituzioek dirua eman ahala, proiektua gorpuzten joan zen, izena jarri zitzaion, bulego nagusia zabaldu zen Bilbon, kanpainak egiten hasi ginen... eta gero eta indar handiagoa hartu zuen.

- **Hasieratik kudeatzen dituzu Ermuko taldeak?**

Ez, lehenengo 3 urteetan beste pertsona batek zeukan ardura hori, eta gero niri proposatu zidaten. Lehen urte haietan gure lana zen taldeak sortzea, eta seigarren edo zazpigarren urterako 90 eta 100 parte-hartzailearen bueltan geunden. Gorabeherak izan dira, eta 150 kide izatera heldu gara, baina

azken urteotan 100 partaide pasatxo izaten dira urtero batezbesteko, eta 10 talde baino gehiago Ermuan, tabernetan biltzen direnak.

- **Zein da Mallabiko egoera?** 2015eko urtarrilean ekin genion bertan Berbalaguni, eta azken urteotan bi talde sortu dira: Gurasolagun (herriko eskolan biltzen dena), eta ohiko talde bat. Azken urteotan gainera, ekintza propioa sortu dugu, Mallabitarrok egina, urtean birritan burutzen dena, arrakasta handiz. Era berean, guk antolatu ditugu Euskaren Eguneko ekintzak azken bi urteotan.

- **Nori zuzenduta dago Berbalagun?**

Proiektua oso ondo doakie euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenei, hau da, euskaraz hitz egiteko euren konfort zonetatik irten behar direnei. Ez da hain erraza dendetan euskara erabiltzen hastea, edo lagunekin hizkuntza-ohiturak aldatzea, are gehiago hitz egiteko erraztasunik ez baduzu. Horiek horrela, Berbalagunek euskara praktikatzeko aukera ematen die, antzeko egoera linguistikoa daudenekin batera. *Bidelariak* deitzen diegu pertsona horiei, euskalduntze bide hori egiten ari direlako. Horrez gain, badago beste rol bat ere, *bidelaguna*, euskaldun osoek burutzen dutena: proiektuan parte hartzen dute euskara maite dutelako, eus-



"Gurasolagun irekia" jarduera Lobiano Kulturgunean.

kaltzaleak direlako, eta nahi dutelako ahalik eta pertsona gehienek euskara ikastea eta erabiltzea.

- **Euskaldun berri eta euskaldun zahar hitzen sinonimoak dira bidelari eta bidelagun?**

Ez, beste ñabardura batzuk dituzte. *Bidelariak* izan ditezke euskara ikasleak, baina euskara askotan erabiltzen ez duten euskaldun berriak ere, euskara galdu duten euskaldun zaharrak, ikasle ohiak..., hau da, bere burua euskaldun osotzat ez dutenak. *Bidelariak*, aldiz, euskaldun osoak dira, euskaldun berriak edo zaharrak izan.

- **Zein da Ermuko parte-hartzailearen perfila?**

Emakumea, 45 urtetik gorakoa, euskaldun berria edo euskara ikasle ohia, eta, jakina, euskara normaltasunez eta bere ohiko bizimoduan erabiltzen ez duena. Aipatu beharra dago, batezbesteko adina gero eta baxuagoa dela (azken hamarkadan 58 urtetik 48 urtera jaitsi da), gero eta gazte gehiago hurbiltzen direlako euskara

ikastera, tituluen eta perfilen beharrak eraginda.

- **Zein da zure lana koordinatzaile bezala?**

Taldeak antolatzea, informazioa helaraztea, eta ekintzak proposatu, sortu, adostu eta kudeatzea, besteak beste. Ekintzei lotutako kontu guztiek, gainera, jarraipen batzorde baten oniritzia jaso behar dute. Horrez gain, sumatzen badut talderen batean dinamismo falta dagoela, *bidelagun* ez badago, edo gutxitan elkartzeko badira, jarraipen berezia egiten diot. Talde bakoitzak ordezkari bat dauka, eta hark ematen dit informazio hori, Whatsappez gehienetan, edo aurrez aurre.

- **Teknologia berriek zure lana erraztu dute?**

Bai, Whatsappak eta sare sozialek koordinazioa erraztu dute eta komunikazioa ugartu. Hasi ginenean, gutunazalak lagatzen nizkien taldeei tabernetan, jende askok helbide elektronikoa ere ez zuelako.

- **Nola baloratzen duzu proiektua?**

**"Proiektu hau oso ondo doakie euskaraz hitz egiteko euren konfort zonetatik irten behar direnei"**

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

IZASKUN TXURRUKA  
Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia  
94 317 66 90  
peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Jende kopuruari eta ordu kopuruari erreparatuta, onartu beharra dago proiektu garrantzitsua dela. Euskarazko 100.000 orduko jarduna eragin dugu Ermuan, beste modu batera ekoitziko ez zirenak seguru-erik. 2.000 pertsona inguruk eman dute izena edizio guztiak batuta, baina horietatik askok eta askok urte batetik bestera errepikatu egiten dute, proiektuaren asebetetze maila oso altua delako. Gure kalkuluen arabera, 700 lagun ezberdin egon dira proiektuan Ermuan eta Mallabian.

**- Azken urteak bereziak izan dira COVID-19aren eraginez. Zer nolako eragina izan du pandemiak Berbalagunengan?** Sasoi batean tabernetan elkar-teea oso zaila jarri zitzaigun;

are gehiago taberna barruan elkartzea. Kanpoan ere, batzuk desanimatu egin ziren, eta aukera berriak aztertzen hasi ginen. Talde bati "Paseolagun" egitea bururatu zitzaion, eta martxan jarri genuen.

**- Ikastaroei dagokienez...**

Pandemiak dena geldiarazi du: yoga, hipopresiboak, eskulanak... Ekintza hauek oso aberasgarriak dira, euskara praktikatu nahi dutenen arteko saretxoa sortzeko aukera ematen dutelako; orain, egokitu behar izan gara, eta Mendilagun, Pintxolagun edota Paseolagun egiten ditugu, esaterako. Azken urteetako ekintzarik arrakastatsuenak Gurasolagun irekia zen. Lorian biltzen ginen eskola guztietako gurasolagunak eta,

## "Euskara praktikatzea da gure produktua, eta horrek ez du dirurik ematen"

Antxitxiketan taldeko begira-leekin batera, tailer bat egiten genuen. Hor plus bat zegoen: umeek euskaraz entzuten zizutzelako egunerokoan euskaraz aritzen ez diren gurasoak. Baina gaur egun pentsaezina da horrelako zerbait egitea.

**- Online ere biltzen zarete?** AEKko Praktikatu zerbitzuak online batzeko aukera eskaintzen hasi zen pandemiaren. Formatu honek baditu berezitasunak, solaskideak argentinarrak, malaysierak, madrildarrak edo bartzelonarrak izan daitezkeelako. Eta badakit bizpahiru ermuarrek talde hauetan parte ohi dutela. Horrez gain, pandemiaren garairik latzenez, Ermuko talde batzuk ere erabaki zuten online elkartzea, bideodeien bitartez, baina kontu puntuala izan zen.

**- Lehen aipatu duzu Berbalagun diru publikoaren finantzatzeko delakoa...**

Bai, proiektu honetan diru publikoa ezinbestekoa da, berez ez duelako dirua sortzen, ez dugu ezer produzitzen. Euskara praktikatzea da gure produk-

tua, eta horrek ez du dirurik ematen. Gastuei aurre egiteko, Udalen, Eusko Jaurlearitzaren eta Aldundien ekarpen ekonomikoak jasotzen ditu AEK-k.

**- Proiektuaren erritmo berean hazi dira dirulaguntzak?**

Hazi dira, bai. Udalaren kasuan, esaterako, hasieran oso ekarpen xumea zen, eta egun diru kopuru handiagoa jasotzen dugu. Dena den, iruditzen zaigu egungoa ere ez nahikoa dela, eta aldarrikatzen dugu herriaren tamainarekin eta eskaintzen dugun zerbitzuarekin bat datorren dirulaguntza jasotzea, gure proiektua kalitate handiagoz burutu ahal izateko.

**- Nora bideratzen da diru hori?**

Gasturik handiena (%90) koordinazioak eragiten du. Horrez gain, ikasturte hasieran egiten den kanpaina eta euskarriak finantzatu behar dira, ekintza batzuk ordaindu egin behar dira, eta Euskal Herri mailako zerbitzua ere guztion artean ordaintzen da.

Dorleta Vidal

Mallabiar ugari biltzen dira "Mallabitarrok egina" jardueretan.




**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com



Illeapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA



Zuri egokitzen den odontologia  
La odontología que se adapta a ti

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI C/11 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04  
info@clinciasanpelayo.com  
San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)



**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Psikologia  
Ongizate pertsonalerako zentroa



**GUZTIOK**  
Nahia Rojo Bustindui  
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua  
Hitzordua: 688 85 18 95

Eskuz egindako terapietan adituak



**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
www.artrosermua.com

# Mallabiko jubilatuen elkarteak, lanari ekiteko gogoz

**Hogeita hamar urteko ibilbidea du Mallabiko Jubilatuen eta Hirugarren Adinekoen Elkarteak, eta urte guzti horietan hamaika ekimen burutu dituzte. Pandemiak eragindako geldialdia laster bukatuko delakoan daude, eta 2022an egingo dituzten ekintzak zehazten hasita daude dagoeneko.**

**M**allabiko jubilatuen tabernako aretoan hainbat egutegi daude mahai gainean. Haien inguruan 6 emakume, oso gogotsu, aurtengo ekin-tzen kronograma osatu nahian. "Espero dugu urtarrilaren 28tik aurrera osasun-neurriak hain zorrotzak ez izatea, eta gure lehengo errutinetara bueltatu ahal izatea", adierazi dute.

Mallabiko Jubilatuen eta Hirugarren Adinekoen Elkarteak 1990eko abenduan sortu zen. Garai hartan herritarrek konturatu ziren baserrietan bizi ziren nagusiak baserrietan egoten zirela beti (kalekoak ez bezala), eta batzuen zein besteen aisialdia dinamizatu nahian, Elkarteak sortzea erabaki zuten.

Orduetik, urtero-urtero hamaika jarduera antolatzen dituzte: yogako ikastaroak, jokoak, osasunarekin lotutako hitzaldiak, izapideak egiten ikasteko tailerrak, irteerak... "2019a oso urte berezia izan zen, jardueraz beteta –aitortu

dute kideek—. Zazpi irteera egin genituen, asko gustatzen zaigulako leku ezberdinak ezagutzeko. Eta goazen lekura goazela, gida bat kontratatzen dugu beti, azalpenak emateko. Bukatzeko, ederto bazkaltzen dugu, hori ezinbestekoa da!". Añanako gatzagak, Iñaki Perurenaren museoa, Santurtziko zubi esekia, Balmaseda eta Laguardia herriak dira, besteak beste, mallabitarrek bisitatu dituzten azken lekuak. "Irteera hauetan 50 lagunetik gora elkartzen gara, jendea irteteko desiratzen egoten da-eta!", onartu dute. Hori horrela, 2020an ere antzerako plangintza zuten aurreikusita, baina pandemiak jarduerak frenatu zituen, eta ordutik gauza gutxi egin dute.

Hori bera gertatu da inguruko herriko nagusien elkartean ere. Ondo dakite, haiekin harremanetan daudelako eta elkarri ekintza ezberdinen berri ematen diotelako. Horrez gain, iazko urrian, 50. urteu-



Zuzendaritza taldeko sei kide. Haien artean, ezkerretik hasita bigarrena, Mariasun Arregi, Elkarteak lehendakaria.

rrena ospatu zuen Nagusiak-Bizkaia Elkarteak (Bizkaiko Jubilatuen Elkartearen Federazioa) eta Mallabiko bi ordezkari parte hartu zuten horren harira antolatutako hitzaldietan eta bazkarian, Euskalduna Jauregian. "Horrelako topaketak oso aberasgarriak dira. Jende asko ezagutzeko aukera ematen dutelako, eta bakoitzak zer egiten duen eta nola egiten duen partekatu daitekeelako".

## 100etik gora

Gorabeherak izan dituen arren, gaur egun 116 bazkide ditu Elkarteak, guztiak 60 urtetik gorakoak eta gehienak emakumeak. Zuzendaritza ere, horren isla da: 9 lagunek osatzen dute batzorde hura, eta 7 emakumeak baitira. Lehendakaria bera ere, emakumezkoa da 2018tik, Mariasun Arregi: "Telefonoz egin zidaten kargua

hartzeko proposamena, Donostian bazkaltzen nengoela, eta ordutik hemen nago. Lau urte beteko ditut aurten, eta irtetea tokatzen zait, baina beste kideek ez didate utziko".

Haren lana da ekintzak lotzea, besteak beste, eta ondoan ditu diruzaina eta idazkaria laguntzeko prest, hala nola zuzendaritzako gainontzeko kideak ere. Urtean zehar egin ditzaketen ekintzak zehazten dituzten bitartean, amets egiten dute nagusien egoitza batekin herrian, eta hainbat kokapen aipatu ere. Bitartean, bi hitzalditan parte hartzeko aukera izango dute otsailean (parkinson gaixotasunaren eta bizi-testamentuaren ingurukoak), beste ekintza askoren abiapuntua izango direnak seguruenik.

Dorleta Vidal



**ITZE**  
OPTIKA  
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak  
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Drogeteniturrri, 307 zk.

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33





## ESKOLARTEKO GOMAZKO PALETA TXAPELKETA JOKATUKO DA OTSAILEAN MALLABIAN

Eskolarteko gomazko paleta txapelketako hainbat jardunaldi burutuko dira datozen hilabeteotan Mallabian. Otsailaren 6an, igandea, 10:30ean hasita, gaztetxoek kategoriako seigarren jardunaldia jokatu da Mallabia I. Pilotalekuan, eta Mallabia A, B, C eta D taldeak arituko dira bertan. Zazpigarren eta zortzigarren jardunaldiak ere herrian jokatu dira (martxoaren 13an eta apirilaren 10ean, hurrenez hurren). Sailkapenari dagokionez, Mallabia B lehen postuan dago, Mallabia D laugarrenean, Mallabia A seigarrenean eta Mallabia C hamargarrenean. Kadeteen kategorian, aldiz, zortzigarren jardunaldia jokatu da otsailaren 27an, igandea, 11:00etatik aurrera. Sailkapenean, Mallabiko taldea bigarrena da, lehenengoarekin berdinduta. Bestalde, urtarrilaren 28an eta otsailaren 6an Mallabian dauden 4 pilotari alebinak banakako esku-pilotako partidak jokatu dituzte herriko frontoian. Pandemiari aurre egiteko neurriak direla-eta, aldaketak egon daitezke ordutegi hauetan edota partiduak bertan behera geratu.

## 61. ITZULIAREN BOSGARREN ETAPA MALLABIAN BUKATUKO DA

Itzulia Basque Country lasterketaren antolatzaileek jakinarazi dutenez, apirilaren 4tik 9ra bitartean burutuko da aurtengo edizioa, 6 etapa



ezberdinetan banatuta. Ibilbidea zehazteko dagoen arren, etapa bakoitzaren irteera eta helmuga non egongo diren iragarri dute jada: apirilaren 4an, Hondarribia - Hondarribia (erloju kontrako proba); apirilaren 5ean, Leizta - Viana; apirilaren 6an, Audio - Amurrio; apirilaren 7an, Gasteiz - Zamudio; apirilaren 8an, Zamudio - Mallabia; eta apirilaren 9an, Eibar - Arrate. Mallabian omenaldia egingo zaio Orbea enpresari, hala nola berau sortu zuten hiru anai-arrebei ere: Juan Manuel, Mateo, Casimiro eta Petra Orbea Murua. Orbea 1840. urtean fundatu zen, Eibarren.


## IZAROK KONTZERTUA ESKAINIKO DU MAIATZEAN DONOSTIAKO BELODROMOAN



Maiatzaren 7an, larunbata, 22:00etan, Izaro abeslariak emanaldi berezia eskainiko du Anoeta-ko Belodromoan, "sorpresaz beteta egongo dena", haren esanetan. Sarrerak Internet bidez erosi daitezke dagoeneko (wegow.com helbidean), 20 eta 30 euro bitartean. Mallabitar honek 2020ko urtarrilean kaleratu zuen *Limones en invierno* diskoa, pandemiaren aurretik, eta ordutik 76 kontzertu eskaini ditu. Bira bukatuta, azken kontzertu berezi hau egitea erabaki du, "inor kanpoan ez geratzeko".

Dorleta Vidal

# FEREDU SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

# Pilar Narbaiza, erraketista

**Mallabitik Eibarko Astelena pilotalekura joaten zen entrenatzera eta herriko beste neskato batzuekin aritzen zen bertan. Profesional mailan urtetxo batzuk egin ostean, Matienako Taberna Zarreko ugazaba andrea izan zen. Bere gainekoak osatzen etxeok eta ezagutu zuten erraketista pare batek lagundu digute.**

**P**ilar Narbaiza Aranburu, Mallabiko Osma auzoko Aixpe baserrian jaio zen 1922ko urriaren 28an. Baserri bereko Pablo Narbaiza Iriondo eta Apoitteko alaba zen. Juana Aranburu Errastiren bigarren alaba izan zen, Franciscaren ondoren eta Jorge eta Emilioren aurretik.

San Trokazeko Digna Garitao-landia erraketistak sarri ikusi zituen Eibarko Astelena entrenamenduetan bai bera zein Iturraldeko Maria eta Jesusa Astarloa bikiak. Mirestu egiten zituen eta haiek jokatzeko ikusteaz joan zen erraketaz litaluzten. Aixpeko Pilar gorputz handikoa zela gogoratzen du, garaia, eta polito moldatzen zela, pilotari “dezentea” zela. Entrenamenduetan Pilar bikote izan zuen batzuetan eta aurkari askotan. Gogoratzen duenez “trukatu egiten ginen, ez geneukan lagun finkorik. Ni aurrelari jartzen nintzen eta Pilar gehienetan atzelari

modura jokatzeko zuten”. Dignak gogoan du abarketekin eta soinean jantzita zeramaten arropa berarekin entrenatzen zutela. Bere gomutaz, lagunak Astelena denbora gutxi egin zuen ikasten, laster jarri zelako profesional modura jokatzeko.

## Baserrir lanetatik libre

Auzokideak ziren Iturraldeko bi neskekin jaisten zen Pilar Eibarrera, Jorge anaiaren inbidiatarako. Honi Carlos Garcia suinak entzunda zion neskak zortekoak zirela, ganajatekoak egiteko ardura barik, erraketa hartu eta Eibarrera zihoazelako entrenatzera. Dignak akordura dakarrenez, behin enpresarioa etorri zen neskak ikuskatzera: “Gaur ondo jokatu biherko juna, pajaritadune etorri doneta” esan zion berbaz berba Pilarri. Hautsak atera ei zioten pilotari orduan egunean!

Maite Gorrotxategi erraketista ermuarrak ere ezagutu



zuen eta, Pilarrek berak esanda, Sevillako Serpes pilotalekuan jokatu zuela diosku. 1940 urteko udan Madrilen dago Aixpeko alaba hau eta erraketista profesional bezala inskribatua izateko eskaera egiten du. Urte horretan Madrileko Chiki Jai pilotalekuan arituko da eta baita hurrengo bietan ere. Bere gaineko dokumentazioak jasotzen duen bezala, 1942 urteko lizentzia Iberia frontoira zabaltzen diote.

Erraketako gora-beherez ez zeukan ohiturarik berba egiteko, pilota-jokoa gustuko zuen arren. Miguel Angel Munitxa semeak aipatzen digun bezala “esaterako, berak esan ez arren ere, Madrilen denboraldi luzea egon zela genekien hara joaten ginen bakoitzeko erdigune guztia ezagutzen zuelako hemen Matienan ibiliko balitz

bezala. Ez genuen galtzeko beldurrik!”.

Behin baserrira pare bat gizon etorri ziren gurasoekin berba egitera: beste neska batzuekin batera kanpora irteteko aukera eskaini zieten, Ameriketara, ondo ematen ziola erraketari eta arrakasta izango zuela. “Baina gurasoek ez zioten joaten utzi” Miguel Angelek aipatzen digunez eta “Madrilera itzuli zen eta kontratua amaitu arte egon zen bertan” Carlosek gehitzen duenez. Euren amak erraketaz ezer ez kontatzearen arrazoia, gurasoek Ameriketarako hegoak moztu izanari leporatzen dio semeak. Hantxe eman zuen amaitutzat. Bai entzun diote, oster, zelan bajatzen zen Ermura merkatura, zelan joaten zen Sarriako Anporta errotrara astoarekin garia ehotzera edo



Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

  
943 170474

ileapaindegia  
**Silvia**  
peluqueria

  
688819336

mutil-lagunak zelan laguntzen zion bueltako bidean...

**Matienan bertakotu**

Sukaldaritza ikasten egon zen Eibarko Txaltxa jatetxean eta bertan lana egiteak fama handia ekarri zion. Matienako Taberna Zarreko Ricardo Munitxarekin ezkondua 1949 ez gerotzik, hango sukaldeak ezkailu eta txuletekin aurretik entzute

ona zuen arren, Pilar kargutu zenean maila altuko platerekin goratu zen. Paregabekoak saltsatan kozinatzen zituenak: tripakiak, muturrak, albondigak, karakolak... eta zelan ez ezkailuak. "Hemen Matienan ez bakarrik gurean, taberna guztietan prestatzen ziren! Sukaldeko neskei sarri-sarri esaten diet nik hemen ikusi ditudala 14 lapiko batera martxan eta gure ama hamalauak eramaten! Batean ezkailuak ipinita, bestean arrautzak botatzeko prest, batzuk azken ukituaren faltan, besteak prest eramateko mahaira... geratu bako martxa!" gogora dakarrenez Miguel Angelek. Eta Carlosek albotik "bai, garbo handikoa zen tia Pilar eta imajinatzen dut jokatzean ere bizitasun berberarekin emango ziola pilotari!".

Behargina oso, la nean buru-belarri sartu zen eta gustuko zuen tabernako harantz-honutza. Oso irekia zen, eskuza-bala eta lagun asko egitekoa. Polito abesten zuen eta duoak egiteko abilezia handia zuen. Oso antzerkizalea zen gainera eta tabernako neskak urtero eramaten zituen Bilbora obraren bat ikustera; maite zuen komedia edo kabaret estiloko



Pilar Narbaiza aurreko hilaran, ezkerrenengo dagoena.

musikalak ikustea: barrea, musika, dantza...

Erraketista lagunekin urtero batzen zen: Donostian, Zarautzen eta azken urteetan Itziarren. Etxekoak joaten ziren bila, askok ez zeukatelako gida-baimenik edo utzita zeudelako. "Bazkariak egiten zituztenean, neu nintzen txoferra eta kotxe bete etortzen nintzen bueltan. Esaten zidan nor laga Durangon, nor Ermuan... Gutxika-gutxika joan ziren jausten eta egiteari laga zioten. Ez zuten gaztetan egiten, adinean aurrera zihozenezenean hasi ziren" esaten digu Miguel Angelek.


Hiru seme-alaba Mari Pili, Miguel Angel eta Rosa Mari eta

sei loba. Benidormera txikiokin joatea gustatzen zitzaion, oporretan. Haientzat kozinamentuak egiten inon baino gusturago!

Hirurogeita bost urte bete zituenean, taberna lagatzera behartu zuen semeak eta hiru hilabetetan, haserrearen haserrez, berba egin barik egon zitzaion. "Gerora eskertu zidan, baina hasieran kosta egin zitzaion, asko maite zuen sukaldeko lana".

Pilar Narbaiza harrera epela egin zion Matiena horretan zendu zen, 2010eko abenduaren 30ean, haraxe bertakotuta.

**Estibalitz González**



Madriren 1940-1942 urteetarako luzatutako bere erraketista baimena.

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g: 943030527

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**

**PALACIOS SM**

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

Betsi-denda Tailor-pepinoi Etxoja-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**LEIRE RASCO**  
BIZARTEGIA  
ILEAPAINDEGIA  
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS  
ERMUA (BIZKAIA)

**Horacio Decoración**

VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 00  
www.dgdecoracion.com

TAPIZERIA - ALIZARIK - OSAGARRIAK

## DEBEGESAK MARTXAN JARRI DU ENPRESEN DIGITALIZAZIOA ETA 4.0 INDUSTRIAREN GARAPENA BULTZATZEKO PROGRAMA



Debegesak, Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak, enpresen digitalizazioa eta 4.0 industriaren garapena bultzatzeko programa jarri du abian. PYME izena du eta bere helburua da laguntza pertsonalizatua eskaintzea eskualdeko lau enpresa ezberdinei.

PYME programaren bitartez, honako zerbitzu pertsonalizatuak eskainiko dizkiete aukeratutako enpresei, lauzpabost saiotan: enpresaren egoeraren analisia, proiektuen identifikazioa eta lehenespena, proiektuen garapena, hornitzaile/aliatu egokien identifikazioa, proiektuen jarraipena eta laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzeko informazioa. Aurreikusitako iraupena 3 hilabetekoa da.

Izena emateko epea zabalik dago, eta programan izena ematen duten lehen lau enpresei eskainiko zaie aholkularitza-zerbitzu hau. Parte hartzeko edo informazio gehiago jasotzeko interesa duten enpresek mezu elektronikoa bidali dezakete pymes@debegesa.eus helbidera, edo 943 82 01 10 telefonora deitu.

## 15.000.000 euroko aurrekontua izango du Mankomunitateak 2022an

Urtarrilaren 20an 2022rako aurrekontua aurkeztu zuen Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak. 14.890.565,16 euro izango ditu aurtengo jardunerako, iaz baino % 2,66 gehiago. Aurrekontuko kopururik handiena hiri-hondakinak gaika biltzeko zerbitzura bideratuko da, 9 milioi euro pasa. Gainerako 4 milioi euroak kale-garbiketarako izango dira. Erakundeko presidente Iosu Arraizek azaldu duenez, helburua da Mankomunitatearen zerbitzuen kalitateari eustea.

Kopuru zehatzei erreparatuz gero, 9.196.621,51 euro erabiliko dira hiri-hondakinak gaika biltzeko, 2021ean baino 68.254,53 euro gehiago. Diru kopuru horrekin honako partidak indartuko dituzte: langile gastuetara bideratutakoak (hiru lanpostu gehiago sortuko dituzte); uharteen garbiketarako; herriz herri ematen dituzten organikoentzako poltsak erosteko eta Mankomunitateko ibilgailuak berritzeko. Beste partidari dagokionez, 4.252.587,65 euro, kale-garbiketarako izango dira (2021ean baino 177.744,55 euro gehiago). Kasu honetan, inbertsiorik handienak izango dira makina berriak erosteko: makina garbitzaile elektriko bat, sasiak garbitzeko makina elektriko eta presio bidezko garbiketa-makina.



### Partida berri bi

Bestalde, Arraizek jakinarazi du Mankomunitateak 26.000 euroko bi partida berri txertatu dituela 2022ko aurrekontuan. Lehenengoa erabiliko da legeak eskatzen duen Jasangarritasun Energetikoaren Plana gauzatzeko (erakundearen eraginkortasun energetikoa bultzatzeko). Bigarrenarekin, berriz, aztertuko du zeintzuk aukera dauden Mankomunitatearen ibilgailu-flota berritzeko, energetikoki eraginkorragoak diren ibilgailuekin ordezkatzeko.

Datu hauek kontutan hartuta, 185,44 euro inbertituko ditu Mankomunitateak herritar bakoitzeko 2022an, hondakinen bilketan, birziklatzean eta kale garbiketean. Erakundeko presidentek azpimarratu du "ahalegin berezia" egin dutela zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta eskualdeko birziklatze-datuak hobetzen jarraitzeko helburuarekin: "Horrek kalitatezko zerbitzuak eskaintzea eta herritarren inplikazioa eskatzen du, eta eskualdeko gaikako bilketa hobetzeko gure aldetik egin dezakegun guztia egiteko konpromisoa hartu dugu aurten ere". Era berean, gaineratu du aurrekontua osatzerakoan, euren helburua izan dela Mankomunitatea osatzen duten Udalen kuotak mantentzea edota ahalik eta gutxien igotzea.

### Inbertsioak, sarrerak eta gastuak

Inbertsioen atalean, 1.376.142 euro bideratuko dituzte, batik bat, baliabide materialak hobetzeko. Sarrerei dagokionez, berriz, 843.502 euroko diru-sarrerak izango ditu Mankomunitateak, 2021ean baino 37.641 euro gehiago. Kasu honetan, nabarmendu dute diru-sarrera gehiago izatearen arrazoi nagusia dela Saica Natur Norte SL enpresarekin papera eta kartoia saltzeko duten kontratua. Hortik 95.000 euro eskuratuko dituztela aurreikusi dute. Azkenik, gastuen atalean, kopururik handienak dira, batik bat, langileen soldatak ordaintzeko zein Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak fakturatutako hondakinen alta kudeatzeko.

Ubane Madera



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN**  
**KOPIAK** ere  
egiten ditugu



943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es



**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

## Martxoaren 31tik apirilaren 10era bitartean burutuko da Korrikaren 22. edizioa

"Hitzekin" lelopean aurkeztu berri du AEK-k Korrikaren 22. edizioa, martxoaren 31tik apirilaren 10era bitartean gauzatuko dena. Ermutik eta Mallabitik apirilaren 1ean igaroko da, astelehena: 8:36an Mallabitik eta 8:59an Ermutik. Eta gure bi herriak zeharkatu eta gero, Eibarrerako bidea hartuko du. Edizio honetako omendua Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo-hirukotea da, hau da, Aiora Zulaika, Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez, "34 urteko ibilbidea egin dutelako euskal munduan, eta, are garrantzitsuago, euskaraz –azaldu dute AEKko arduradunek–. Eta eragileak direlako, orainaldiari eta etorkizunari begira daudenak". Musikari dagokionez, gero eta ezagunagoa izango den *Hitzekin* abestiak girotuko du Korrika. AEK-k jakinarazi duenez, Nerea Urbizu izan da zuzendari artistikoa,

baina hainbat bidelagun izan ditu: Sustrai Colinak sortutako hitzak Ane García, Anarik eta Nerea Urbizuk abestu baitituzte. Eta Eymard Uberetagoena (Tripulante Produce) aritu da bideokliparen ekoizle lanetan. AEK-k korrika.eus webgunean bildu du Korrikari buruzko informazio guztia, tartean, nola kolaboratu daitekeen ekintza erraldoi honekin gaurtik hasita: Korrikako materiala erosiz, herriz herri egingo den Korrikaren aldeko diru-bilketan lagunduz, Korrikaren izenean Laboral Kutxan zabalduko kontu korrontean ekarpena eginez ( ES70 3035 0072 02 0720037810) eta lekukoa familiarekin, elkartekideekin edota lagunekin eramanez, besteak beste.

## Urte hasiera jendetsua Urkon

Urteberri egunez Urkora igotzearen ohitura indartsu jarraitzeaz gain, aurtengoa aspaldiko jendetsuena izan zen bertaratu zirenen iritzi. COVID-19ari aurre egiteko murrizte-neurrien ondorioz bezperan parranda egiteko aukerak gutxituta, Urkora igotzea izan zen lagun askoren eta askoren hautua. Eguraldi eguzkitsua, epela, atsegina... Tontorretik, mendien eta itsasoaren ikuspegia paregabea. Familia osoak ikusten ziren, bikote ugari, kuadrillak erruz eta txakurdunak nonahi. Jendearen jendez, tontorrean tiketa hartu behar ote zen galdetu zuenik ere egon zen! Horrenbestera ez, baina argazkia ateratzeko txandak egin, bai. Txin-txin eta egurra urte berriari!



## EKINTZA UGARI SUSTATUKO DITU EMAKUMEEN TOPALEKUAK EKAINERA BITARTEAN



Otsailean hasi eta ekainera bitartean, 8 ikastaro eskainiko ditu Ermutiko Jabekuntzarako Eskolak, tartean "Mindfulness ziurgabetasun garaian", "Ahalduntzerako biodantza", "Zoru pelbikoa indartzea eta autoezagutza" eta "Perreoa eta patriarkatua beharaino". Guztiak burutuko dira Emakumeen Topalekuan, 5 euroren truke, baina ordutegi eta formatzaile ezberdinekin. Bestalde, doako ekintza ezberdinak planifikatu ditu Emakumearen Topalekuak, Udalaren laguntzarekin, eta hauetan izena eman beharko da aldezturik: Martxoaren 8ari lotutako jardunaldi berezia burutuko da martxoaren 5ean, larunbata, Lobiano Kulturagunean, "Zaintzen duena zaindu: zaintzaileen egoera eta beharrak Euskadiko etxeetan" izenburupean. Ekainaren 28ari lotuta, berriz, zinekluba egongo da maiatzaren 26an eta ekainaren 30ean. Azkenik bi hitzaldi izango dira maiatzean: "Pertsona transexualen errealitatea hurbildu" (hilaren 12an) eta "Harreman afektiboak online munduan" (31n). Ikasturteari bukaera emateko, irteera egingo da Nafarroara: "Emakumearen aurpegia duen historia: Pausoz pauso, Iruñeko historian emakumeen presentzia eta ekarpenekin". Ekainaren 11n burutuko da, 5 euroren truke. Ekintza hauen inguruko informazio gehiago jaso nahi dutenek Emakumeen Topalekura jo beharko dute (Izelaieta 12) edo 943 17 10 30 telefonora deitu.



# Urko Gaez Trail Team, frontala bekokian maldan gora

2018an sortu zen Urko Gaez Trail Team mendi taldea, Richard Medina eta Jesus Añel ermuarren ekimenez. Orduetik, Urko mendira igotzen dira asteen birritan, gaez, euren taldera batu diren hainbat lagunekin batera. Aitortzen dute esperientziak xarma berezia duela, eta taldeak giro ezin hobea: probatzen duena zaletu egiten omen da.

**N**ahia eta ezina elkar-tzen direnean (mendizaletasuna eta denbora eza, kasurako), Urko Gaez Trail Team bezalako proiektu bereziak sortzen dira: arrotzak askorentzat, baina euren kideen beharretara zeharo egokitzen direnak. Richard Medina eta Jesus Añel

GPSeko ikastaro batean ezagutu ziren, duela urte gutxi. Segituan konturatu ziren hainbat gauza zituztela komunean, aipagarrienak, mendizaletasuna eta seme-alaba gazteak, eta mendira elkarrekin joateko go-goa gailendu zitzaion denbora faltari. "Noiz ahal duzu zuk? Nik ezinezkoa daukat, afaldu os-



Ezkerrean, Richard Medina eta eskuman, Jesus Añel.

tean ez bada...". Esan eta egin.

Astearte eta ostegunetan jarri zuten hitzordua, 21:45ean, eta berehala batu zitzaizkien kide gehiago, adin eta izaera ezberdinetakoak. "Ez dugu Urkora igotzea kiroltzat hartzen, guretzat sozializatzeko modua da: tabernan geratu beharrean, mendian geratzen gara, eta gus-

tura gaude elkarrekin. Horren adierazle da denbora gehiago ematen dugula jaisten, igotzen baino, berriketan aritzen garelako", azaldu du Richardek. "Gainera, oso bitxia da, etxeratzerakoan ez dakigulako zeri buruz egon garen berbetan!", gehitu du Jesusek. Pentsatu eta gero, betiko txisteak, gastro-

## Ugaro asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA  
tel. 943 17 43 44 • [ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com)

Agente eksklusiboak:

**Allianz**   
Seguros

nomia eta COVID-19a aipatu dituzte mintzagai nagusizat.

Talde iraunkorrean 6 lagun daude gaur egun, eta horiez gain, badaude noizbehinka batzen diren "sateliteak". Eta bai batzuk zein besteek taldeak dituen idatzirik gabeko bi arauak errespetatu behar dituzte. Alde batetik, eguna eta ordua ez dira sekula aldatzen. "Egin dugun ordu aldaketa bakarra pandemian izan zen —azaldu dute—, etxeratze-agindua betetzeko 20:00etan geratzen ginelako". Bestalde, bigarren arauak dio ez diotela inori itxaroten: 21:45ean martxa! "Horrek ez du esan nahi bidean gora, baten bat astiroago badoa bakarrik utziko dugunik, ezta gutxiago ere! Motelenaren erritmora egokitzen gara, eta ez digu axola igotzeko ordu eta erdi eman behar badugu", argitu dute. Horiek horrela, nahi duten guztiei probatzeko gonbitea egiten diete.

### Bidean seguru

Bidea egiteko ez dute material berezirik eramaten, frontala baino ez, eta hala ere ziurtatu dute egunez bezain segurua dela mendia gauez. "Gaeuan lurrera begira zoaz, adi, ez dagoelako beste ezer begiratzeko". Dena den, onartzen dute mendizaletasuna modan dagoen honetan, pertsona asko axolagabeen joaten direla mendira. "Etxekoak lasai-lasai daude, eta gainera begi onez ikusten dute gu mendira joatea. Gure kasuan behintzat, lan guztiak eginda lagatzen ditugu etxean, gu mendira joateak gure familiarentzat lan karga ez izateko. Gainera, saiatzeko gara familiari denbora ez kentzen, eta aste-

buruetan mendira bagoaz, oso goiz joaten gara, haiek oraindik lo daudenean. Gure loari edo mugikorrari lapurtzen dizkiogu ordu horiek", argitu dute.

### Gauaren xarma

Baina, Urko berdina da egunez eta gauez? "Nire ustez, egunez kanpo-estimulu gehiago daude, eta jende gehiago. Gaeuan ez dago ezer, zure frontalak ematen dizun argitasuna besterik ez, eta gure pentsamenduetan eta elkarrizketan oso zentratuta joaten gara —esan du Medina—. Horrek aukera ematen dizu taldekoekin kalitatezko denbora partekatzeke".

Eta ez taldekideekin bakarrik. Izan ere, Urko Gaeuz Trail Teamekoak ez dira bakarrik gaua maite dutenak. Animaliak ere, iluntasunaren babesean, lasaiago ibiltzen dira, eta ohikoa da taldekideek orkatzak, kirikiñoak edota hontzak ikustea. Hain da berezia gaua! Bat-ba-



Urko Gaeuz Trail Team taldeko kide batzuk Urko puntan.

tean temperatura hainbat gradu igotzea, elurtutako gailurrera heltzea, ilargi betea bidelagun izatea... "Ilargi betea liluragarria da! Sinestezina ematen du, baina ilbetea, horrenbesteko argitasuna dago, kerizpea sortzen dela!", esan du Añelek.

Eta ilargia ez bada zerua argitzen duena, su artifizialak izan daitezke. Gogoan dute urte batean gailurretik ikusi zituztela Eibarko, Berrizko eta Markinako

su artifizialak. Urte gutxitan oroitzen kopuru amaigabea pilatu dituzte, eta lagun talde sendoa osatu: urtebetetzeak mendian ospatzen dituzte, inauterietan moztortuta igotzen dira... "Igoera bakoitza ezberdina da, eta ia banan-banan gogoratu ahal izango genituzke, bertan sortutako anekdotak di-rela-eta", onartu dute.

Dorleta Vidal

### Richard Medina, mendizalea:

## "2021 ean, 204 bider igo naiz Urkora"

- Gutxitan egiten diozu kale Urkori...

Bai, mendia arnasbidea da, berdin zait euria edo elurra. Egungo bizitza oso estresagarria da, eta itzela da mendira joateko tarte hori hartu ahal izatea. Lasaitu egiten nau, eguneko arazoak ahazten zaizkit.

- Egiten dituzun irteera guztien erregistroa daramazu?

Bai, Strava aplikazioaren bitartez. Haren arabera, 3.500 kilometro egin nituen 2021ean mendian, eta 200.000 metroko desnibel positiboa. Egia esan,



lasterketa ugaritan parte hartu nuen: Traveserina, Bilbao-Frías, Hiru Handiak, Serantes igoera, BUTs trail, Lemoa trail, Gorbeia-Suzien, Donostiako maratoia...

- Zerk ezberdintzen du Urko gainontzeko mendietatik?

Mendi lasterketak gustatzen zaizkit, eta Urkon entrenamendu gogorra eta erraza egin daiteke, bizkor, eta etxe ondoan. Lau kilometrotan 650 metroko desnibel positiboa du, eta lasterketarako entrenamendu ezin hobea da.

- Egunez edo gauez joatea nahiago duzu?

Gaeuz, taldekoekin, baina asko gozatzen dut emaztearekin eta seme-alabekin igotzen ere.

ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU  
ZUK ERABAKI  
www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57  
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia

KARABIXA  
KARABIXA KAFETEGIA  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

# Hainbat ermuarrek parte hartu dute Iruñeko Laba Aretorearen inaugurazioan

Urtarrilaren 7tik aurrera, euskarak eta euskal kulturak gune berria dute Iruñeko Gazteluko plazan: Laba Aretoa. Besteak beste, denda, kafetegia, oholtza eta topagunea izango da Laba, eta haren inaugurazioan hainbat ermuarrek parte hartu zuten: gehienek bisitari bezala, eta batek proiektuaren sustatzailea gisa. Haiekin jardun dugu proiektuaz.




## Unai Rodriguez, Kudeaketa taldeko kidea

Duela 3 urte joan zen Unai Rodriguez ermuarra Nafarroara. Euskaltzale amorratua, bideari eutsi dio Iruñean ere, eta Laba proiektuaren partaide izan da hasieratik. Rodriguezen esanetan, Iruñeko Gazteluko Plazan bizi den familia euskaltzale baten ekimenez abiatu zen egitasmo hau. "Adierazi ziguten

euskararekin zerikusia zuen proiektuaren bat martxan jarri nahi zutela euren lokalean, eta 30 lagunez osatutako talde batek hausnarketa prozesua abiatu genuen 2020ko azaroan". Urtebete pasatxo geroago, eta *crowdfunding* kanpaina bat tarteko, Laba Aretoa zabaldu berri da. Kafetegia duen gune sozializat dute taldekideek Laba, "kulturgune soziala izango baita, euskaraz kudeatuko dena", esan du Rodriguezek.

Inaugurazioan kuadrillakoak joan zitzaizkion Unairi, eta hori "gozamena" iruditu zitzaion: "Garrantzitsua iruditzen zait lagunei azaltzea zertan nabilen, nire Iruñeko sarea zein den erakustea, eta bi sareen arteko harremana sortzea". Orain Unaik lanean jarraitu behar du, Labaren bazkidetza kanpaina bete-betean dagoelako (laba.eus).



## Josu Gomez, Bisitaria

Ez da lehen aldia Josu Gomez eta bere kuadrilla Iruñera doazela. Oraingoan Laba Aretorearen inaugurazioan parte hartzeko asmoarekin hurbildu ziren bertara, bi arrazoi nagusi tarteko: "Alde batetik, Unai Rodriguez lagunak sustatutako ekimena ezagutzeko eta hari babesa emateko —azaldu du Josuk—. Bestalde, proiektua

bera oso interesgarria iruditzen zaigulako". Zortzi lagun bertaratu ziren Gazteluko plazan kokatuta dagoen espazio horretan, publiko guztiaren %20 gutxi gorabehera. "Oso polita iruditzen zait gaur egun euskaldunentzako arnagune eta topagune bat sortzea, Iruñeko zentroan, gainera. Hori izan da agian gehien harritu nauena: kokapena, eta baita ere gauza asko bateratzen dituela", azaldu du Gomezek. Haren esanetan, Ermuan edota Debabarrenean antzeko espazio bat izatea zoragarria litzaiteke, baina onartu du horrelako proiektua gauzatzeko gauza asko behar direla, besteak beste, gogoia. Momentuz, Iruñeko Aretora joan ahal izango da nahi bestetan, eta ziurtatu du sarritan izango dela.

Dorleta Vidal

Komunitateak

# San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

LEIRE MAYORA

# PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44

NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com



## Urrian esan eta urrian izan



Osasun-egoera dela-eta ikas-  
turte bateko geldia egin  
ondoren, berriro ere bi gau  
pasatzeko aukera paregabea  
izan zuten LH2koek (Lurraska)  
eta LH4koek (Baratze). Hain-  
bat ekintza egin, gaubela eta  
ingurugiroarekin kontaktuan  
egoteko parada izan zuten.  
Gustuko tokian, bide txarrik  
ez, gau eta ilunik ere ez!



### Abenduko egunik ez, jai huts eta gau huts! Euskararen Eguna



San Martin Azokako ajea-  
rekin iritsi zitzaigun Eus-  
kararen Eguna. Egoerara  
moldatuta ospatu behar  
izan genuen berriz ere, eta  
hala ere, merezi izan zuen.  
Haur Hezkuntzatik hasi  
eta Lehen Hezkuntzako 6.  
mailarainoko ikasle guztiok  
ekintza bereziekin ospatu  
genuen egun berezi hau:  
herri kirolak, Argitxoren bi-  
sita, txokolatada, atsotitz  
lehiaketa... denetik izan  
genuen. Ongi pasatzeaz  
gain, ez dezagun ahaztu  
hizkuntza bat ez dela gal-  
tzen ez dakitenek ikasten  
ez dutelako, dakitenek  
erabiltzen ez dutelako  
baizik! (J. A. Artze). Beraz  
hortxe gure erronka, eus-  
kara bihotzean bai, baina  
batez ere ahoan! Euskara  
ahoa eta ibili munduan!

## Azaroko eguna, argitu orduko iluna! San Martin Azoka

Urteetako etenaldiaren ondoren, aspaldi-  
ko ohitura zaharrari heldu genion berriro  
ere. Zoragarria izan zen eskola-komunitate  
osoaren inplikazioa, eredugarria familien par-  
te-hartzea, zer esanik ez  
ikasleen poza eta lanerako  
gogoia. Ikastolako ikasleak,  
ikasle ohiak, gurasoak, ai-  
tona-amonak, jantokiko  
langileak, garbitzaileak,  
autobuseko langileak, an-  
dereño eta maisuak, denak  
aritu ginen elkarlanean  
San Martin Azokarako pos-  
tuaren prestaketan. Eta  
bai, ereindakoan fruitua

jasotzen den lez, hemen ere hala izan zen.  
Eskerririk asko guztioi jasotako uztaren emaitza  
halakoxea izan baitzen: merezitakoa!



### Hamburguesería TITANIC



*Pintxo dastaketa  
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



### Zure publizitatea:

**DROGETEN** ITURRI  
Ermuko eta Mallabiko  
herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876  
drogeten@gmail.com

Zuri egokitzen  
den odontologia  
La odontología  
que se adapta a tí

SAN PELAYO  
HORIZ ALBIA • CLÍNICA DENTAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1254

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04  
info@clnicasanpelayo.com  
San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)

# Benetako bizitza

**E**guneroko inertzia zoro batean erortzen zarenean zeure buruaren zaintzaz akordatu gabe, datu eta datak amesgaizto; iritzi, afirmazio, ahots zein gomendio, denak aldi berean eta etengabe kanpotik eta zeure baitan; eta aurkitzen zarenean hor kaosa maneiatzeko tresnarik gabe, ez zarenean nor egoera iraultzeko, aukera bi baino ez dira gelditzen: edo begiak itxi eta suntsi zaitzaten utzi, edo ihes egin. Aukera iritsi zenean egin nuen ihes, neure buru-osasunagatik.

Osasun arazo batek azaleratu ditu gizarte oso baten (goi kargu eta herritar) heziketa eta kontzientziazio arazoak. Ez da zilegi osasunaren ize- nean maniobra politikoak ezkutatzea burges batzuen etekinak handitzeko. Ez da zilegi ebidentzia zientifikoa eta adituen iritzia alboratuta arrazoitu gabeko neurriak inposatzea urte sasoiari lotutako mugimendu ekonomikoen arabera. Dagokionean dakienari entzun behar zaio. Ez da zilegi haurrak eta egoitzetako adinekoak gotortu behar izatea helduok ez garelako dagozkigun ardurak hartzeko gai. Ez da zilegi arrazoi epidemiologikoak gure kobenientziaren arabera argudiatu edo baztertzea. Ez da zilegi gauzak bere onetik ateratzea erakusteko zer izan nahi duzun. Ez da zilegi zientziaren anbiguetateak aprobetxatzea talde

interesatu batzuek bultzatutako teoria eta sasi-egiak abalatzeko. Nabarmena da gure interesekin bat ez datorrena baztertzeo daukagun joera, ebidentzia batzuk ez onartzera garamatzana. Gudan sortzen duen ezinegona erantzeko ia ezagutzen eta ulertzen ez den arazo berri eta konplexu bati irtenbide errazegiak ematea ihesbide zentzugabea eta gainera akats larria iruditzen zait. Ez da zilegi debekuak aldarrikatzea nork bere burua salbuesita. Ze komeni denaren arabera izendatzen dugu gure burua ezinbesteko edo salbuespen. Eta nik ere egingo nuke barre gure jarrera negargarria ez balitz. 2020ko udaberriaren izandako panoramaren lekuko izan denak ezin ditu jarrera batzuk ulertu. Korporazioen aurrean askatasuna defendatzen delakoan, babes publikoko sistemak suntsitzen dituen ideologiaren adibide bihurtzen ari garela ikusteak ematen dit min. Halakoak dira pribatizazioa iraurarazteko mekanismoak.

Gehiegizko informazioaren eta formazio faltaren aroan, hiperinformazioa kudeatzeko gaitasunik ez daukan jendartea gara, ziurrenik itxarotearren artea galdu dugulako. Ez gara gai anbiguetatea jasateko inongo arlotan. Gauzek zehatzak, azkarrak eta orain izan behar dutelako. Eta ikusi da ez dugula komunitatean sinesten. Pena handia eman dit horrek.



*Garazi Mugarza*

Azken bi urteotan bakoitzak bere errealitatean jasan ditu galera eta dezepzioa, eta oraindik haserrea kanalizatu ezinda gabiltza. Dolua motela da eta min horri lekua eman behar zaio. Bizitzak momentu oso gogorak ditu, gauza politak ere bai. Gure gorputza munduan gehien maite ditugun gauzen aterpea da. Argitasunez ikusten uzten ez digun intoxikazioaldi honetan, benetako bizitzara itzultzeko deia egin nahi dut, gauza txiki deitzen ditugun (inoiz ez dut ulertu zergatik) balio ikusgarriko elementu horietan arreta jarri eta horiek berreskuratzeko. Ze egiazko bizitzak hor darrai, beharbada ardura gehiagorekin, baina beti bezain bizi eta eder.

Benetako bizitzan arreta jartzeko deia egin nahi dut, eta horrekin batera estatu mailako zaintza sistema deszentralizatu eta publiko baten alde egiteko deia. Ez ditzala haserreak gizaki eta talde egiten gaituzten baloreak lausotu.

Albert Camusen esaldi eder bat ekarri nahi dut gogora, bukatzeko: "Sinetsiezadazue ez direla existitzen betiereko sufrimendua, pena infinitua, oroitzapen ezabaezina... dena ahazten da, baita maitale handi bat ere. Hori da bizitzaren alde tristea, eta zoragarria ere bai". Keinu bat itota dabilzan nire lankideei.

“ Osasun-arazo batek azaleratu ditu gizarte oso baten heziketa eta kontzientziazio arazoak ”

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOIA**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**



Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

# MANUEL JIMÉNEZ

## - Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Alaia gogoratzen dut, poz askorekin. Gogoan dut denetara jolasten genuela: puztarriekin, zibarekin eta beste hainbat gauzetara. Asko mugitzen ginen.

## - Eta gaztaroa?

Garai polita hau ere, *makarilla* bezala gogoratzen dut. Elgoibarren ibiltzen ginen, baina gu ardotara joaten ginen, ez zerbezetara, gaur egun egiten den antzera.

## - Umetan zer bait izan nahi zenuen?

Ez dut gogoan ezer izan nahi nuenik, egian esan.

## - Txikitan ere momentua bizitzen?

Bai, noski. Hori egin behar da-eta!

## - Zer irakatsi zizuten gura-soek?

Errespetua, gehienbat, nagusienganakoa batez ere. Bizitza nire gain hartzen ere erakutsi zidaten, nahi nuen hori lortzeko saiakera egitera. Lanean txibato bat ez izaten ere. Azken honetan aita gogoratzen dut.

## - Ikasteko aukera izan zenuen?

Bai. OHO egin nuen eta gero Armeria Eskolara joan nintzen. Soldadutza egitea tokatu zitzaidan, eta bertan behera utzi nituen ikasketak. Hala ere, hogeita hamar urterekin, gutxi gorabehera, DBHK titulua atera nuen.

## - Beti ibili zara lan berdinean?

Ez, lan asko izan ditut. Gaur egun bi ditut: bata garbitzai-



**55 urte ditu, eta bi hilabete zituenetik bizi da Ermuan. Hiru seme-alabetatik nagusia da, eta lau alaba ditu. Hainbat lanetan ibili ostean, Ermuko kaleetan garbitzaile bezala dihardu, kamioitxo gidatzen.**

le bezala, eta bestea autobus gidari bezala. Bietan gidatzen ibiltzen naiz.

## - Zenbat urte daramatzazu lanean?

Garbitzaile bezala 27 urte daramatzat, eta autobus gidari bezala 20.

## - Zer da gehien gustatzen zaiuzuna lan bakoitzetik?

Garbitzaile lanetik gehien gustatzen zaidana da lan eroso dela. Herriarentzako zer bait egiten nagoela sen-

titzen dut, eta horrez gain goizeko lana da, arratsalde osoa libre izanik. Autobus gidari bezala gehien gustatzen zaidana da jende asko ezagutzeko aukera dudala.

## - Eta gutxien?

Garbitzaile lanetik ezer, lehen esan bezala urte asko daramatzat eta errutina batean sartu naiz. Autobus gidari bezala, nahiz eta urte asko eraman, haserretu egiten naiz batzuetan, jendeak

ez duelako beti errespetuz jokatzen. Lan sakrifikatua da, alde batetik horregatik, eta bestetik jai egunetan lana egitea tokatzen delako.

## - Aisialdian zer egiten duzu?

Xakera jolastu eta xake bideoak ikusten egoten naiz, oso gogoko dut-eta.

## - Kirolrik egiten duzu?

Xakea, kirola deitu badakiteke! Lehen gimnasia eta pisuak altxatzen nituen, baina gaur egun ez dut ezer egiten.

## - Nora egingo zenuke bidaiabat?

Ba ez dakit. Asko gustatzen zait bidaiatzea, egin ezin dudan arren. Kultura berriak ezagutzeko gustatuko litzaidake. Japoniara joango nintzateke agian, edo Australiara.

## - Zein da gehien gustoko duzun musika mota?

Heavya. Klasikoak gustatzen zaizkit.

## - Zer irakatsi dizu bizitzak?

Pazientzia izaten jendearekin. Oso persona pazientea naiz.

## - Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Asko hitz egiten duen jendeak, parte hartu ere ezin duzunean egin. Gehienetan entzun ere egiten ez dutenak dira. Baina, esan bezala, pazientzia handia dut.

## - Ondo moldatzen zara teknologia berriekin?

Ez. Gustatu ere ez zaizkit egiten.

Nahia Ruiz Albizuri




**SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA**  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12



**Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.  
- Txipiroiak.  
- Piper beteak: okela edo onddoak.  
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.  
- Redondo saltsan.  
- Sagar tarta.  
- Gazta tarta.  
- Tortila patata...

**Erdikokale 13**  
**(Ermua)**

**ENKARGUAK**  
**943 030 299**

**MALLABIA  
1950**

Argazki hau 1950 ingurukoa da,  
eta bertan Goita baserriko familia ageri da.  
Atzean, tente, Antonio, Dominga, Agustina, Juanita,  
Felisa eta Pedro Gallastegi Txurruka anai-arrebak.  
Aurrean, eserita, gurasoak:  
Bixenta Txurruka eta Juan Jose Gallastegi.

**ERMUA  
1962**

Ezkerretik eskumara Gemma Mallagarai,  
Maite Areitioaurtena, Olga Olañeta eta  
Mertxe Garitagoitia, eskuetatik ondo  
oratuta dutela Jose Mari Zenikazelaia.  
Argazkiaren ezker aldean Salaberrianeko  
etxearen burdinezko hezia ikusten da  
lehenengo, Ostatukua gero eta Zubiaurre  
2ko etxea. Eskuman Otxuaneko baserria  
aurrenengo, Motxunekoa gero, abadetxea  
eta Valdespina jauregiaren ertza.

\*Zuzenketa: Abenduko argazkian,  
beheko ilaran ezkerrean agertzen dena  
Milagros Arrizabalaga da.

**uriarte asesores** ✓

Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

mari  
asun

LORADENDA



Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379



**Caperos**

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA \* ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apandegi bat  
baino gehiago!!*



Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

## LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.  
© 648 62 52 09.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.  
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.  
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.  
© 617 67 49 27

## IRAKASKUNTZA

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat.  
© 688 68 36 55.

## SALEROSKETAK

Gaixoak ohetik altxatzeko garabia saltzen dut. Winnicare markakoa. Oso egoera onean. Prezioa: 300 €. Garabiarekin batera, eskaren kontrako koltxoi puzgarria oparitzen dut, motorrarekin.  
© 699 24 42 13, Tere.



**Urtarrilaren 18an**  
Zorionak Gorka zure 9. urtebetetzean familia osoaren partez. Segi horren alai eta umoretxu. Musu handi bat!



**Otsailaren 15ean**  
Zorionak Irune!! Muxu handi bat zure familia osoaren partez. Asko maite zaitugu!



**Otsailaren 5ean eta 14an**  
Zorionak bikote! Zer azkar handitzen ari zareten... Pilo-pilo maite zaituztegu!!! Aita eta ama.



**Otsailaren 8an**  
Zorionak mutil handi!!! 13 urte bete dituzu jada, zein azkar hazten ari zaren!!! Musu handi bat guztion partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:  
**drogeten@gmail.com**

Azken eguna: **Otsailaren 16a.**



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO**  
arraindegia



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu**  
Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

**ZINEA**

**Hilaren 5etik 8ra:**  
"Agente 355" + "El caso Villa Caprice"

**Hilaren 12tik 15era:**  
"El callejón de las almas perdidas" + "El pacto"

**Hilaren 19tik 22ra:**  
"El método Williams" + "La abuela"

**Hilaren 26tik 1era:**  
"Belfast" + "En un muelle de Normandía"

Ermua Antzokian.  
Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 3:**  
"Madeleine Collins"

**Hilak 10:**  
"Apaiz kartzela"

**Hilak 17:**  
"Yo nunca lloro"

**Hilak 24:**  
"Noche de fuego"  
Ermua Antzokian.  
20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 6:**  
"Ilargirantz"

**Hilak 13:**  
"Buscando a la mágica Doremi"

**Hilak 20:**  
"Tengamos la fiesta en paz"

**Hilak 27:**  
"Cazafantasmas. Más allá"  
Antzokian. 17:00etan.

**ANTZERKIA**

**Hilak 4:**  
"Porno versus Afrodita", Benetan Be taldearen eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10 €

**Hilak 12:**  
"María", Iñaki Dantaren eskutik. 20:00etan. Lobianon. Sarrera: 10 €

**Hilak 18:**  
"Mi hijo solo camina un poco más lento", Tanttaka taldearen eskutik. 20:30ean Antzokian. Sarrera: 15 €

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 5:**  
Antzerkia: "Ganbara", Markeliñe taldearen eskutik. 17:00etan. Antzokian. Sarrera: 4 €.

**Hilak 12:**  
Ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.

**Hilak 19:**  
Ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.

**MUSIKA**

**Hilak 11:**  
Kontzertua: Shinova. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrerak: 15 €

**Hilak 19:**  
Blues Kontzertua: The Cinelli Brothers. 20:00etan. Lobianon. Sarrerak: 10 €

**ERAKUSKETA**

**Hilaren 13ra arte:**  
Argazkiak: "Ermua Antzokia 2021". Oscar Blancoren lanak. Lobianon. 18:00etatik 20:00etara.

**BESTELAKOAK**

**Hilak 4:**  
Agata Deunaren kalejira. 18:30etatik aurrera, Santiago iturritik irtenda.

**INAUTERIAK**

Egoera epidemiologikoaren arabera burutuko dira

**Otsailak 24 Eguen zuri**  
16:00etan: Oilararen jokoa.

17:30ean: Diskofesta: Xaibor Djarekin.

**Otsailak 25 Hartza eguna**  
18:30ean: Kalejira Lobianon hasita.

**Otsailak 26**

**Larunbata**  
12:30ean: Mozorro lehiaketaren kuadrillen kalejira.  
13:00etan: Kalejira Irulitxa txarangarekin.  
17:30ean: Umeentzako txokolatada.  
18:00etan: Umeentzako dantzaldia Azkona taldearen eskutik.  
19:00ean: Kalejira Irulitxa txarangarekin.  
19:30ean: Umeentzako mozorro lehiaketa.  
23:00etan: DJ Festa Festa Los 40rekin.

**Martxoak 1 Asteartea**

16:00etan: Umeentzako diskoteka.  
18:00etan: Kale ikuskizuna: "Gerokoa, bidaia", Tiritirantes taldearen eskutik.  
19:00etan: Erromeria Continente orkestrarekin.  
23:00etan: DJ Festa Oihan Vegarekin.  
Ekitaldi guztiak Orbe Kardinalaren Plazan.  
(Eguraldi txarra egonez gero, ekitaldiak Aritzemendi pilotalekura eramango dira).

Patxi López

**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA  
VI. Menduurrena 19, behea  
943 17 90 37  
enter@informaticaenter.com

**arral**  
Luis Cañas  
Amaren  
Cair  
Ehun  
Txakoli Astobiza  
Pazo Señorans  
Cava Oriol Rossell  
Cair  
Casar de Burbia  
Bodegas Valdemar  
García de Olano  
Manzanos Wines  
Pernord Ricard Wines  
Faustino García Martínez.  
T.943176075  
arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

**Proba-Leku**  
Ileapaindegia - Estetika  
Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**URRETA** burdindenda  
✘ Etxea ✘ Giltzak  
✘ Tresneria ✘ Sarrailagintza  
✘ Erikoizaje ✘ Kit altzariak  
✘ Errailak  
Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan  
espezialistak  
**Mayte**  
VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

# GREMIOEN

## GIDA



**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA  
**LUIS VALLE**  
  
Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56  
Tailerra  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**ERROTULAZIOA**  
**ROTEK**  
R Ó T U L O S  
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak  
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak  
Publizitate kanpainak · Led pantailak  
943 17 00 36  
[www.rotekrotulos.com](http://www.rotekrotulos.com)  
**ROTEK**  
**LED PANTAILAK**

**PERTSIANAK**  
**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS  
  
- Toldoak  
- Ostalaritzarako muntaiak  
- Pertsianak  
- Instalakuntzak eta konponketak  
- Motorizazioa  
- Marparak  
- Segurtasun pertsianak  
- Pertsiana dekoratiboak  
- Edoareak  
- Eitxo-sareak  
Tawera:  
Zentroko Buztea 2  
943 17 86 34 - 830 01 73 41  
48200 Ermua (Bizkaia)  
Ereketza:  
Karabasa 1  
48200 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianeorbe@gmail.com

**ELEKTRIZITATEA**  
**BETA**  
**ARGIZTAPENA**  
**ELEKTRIZITATEA**  
• Proiektuak • Kalefakzioa  
• Instalazioak • Gaueko tarifa  
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak  
Diputazio, 13 943 17 65 25  
689 23 31 71

**ETXETRESNAK**  
**Egaña**  
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA  
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

# Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



Valdespinako Markesa kalea, 16



## Hileta zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra.
- Agur pertsonalizatuak.
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.

**T. 943 176 159**

Ermua · Eibar · Elgoibar · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete ·  
Santurtzi · Leioa · Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda